

## Euskera ikasleen eskutik hasiko dira Santio festak bihar, Astigarragan

Arratsaldeko 19:00etan botako dute txupinazoa, eta handik aurrera beste lau egun izango dira aurretik, festetaz gozatzeko. Urtero bezala, Santio eta Santa Ana egunak izango dira, inportanteenak.

EUSKAL Herritik kanpo jaio badira ere, astigartar peto-petoak sentitzen dira bihar txupinazoa botako duten sei emakumeak. Euskera ikasleak dira seiak AEKn, eta egiten ari diren saiakera aitortu nahi die Udalak, txupinazoa botatzeko aukera emanda. Pregoia 19:00etan irakurriko dute, Udaleko balkoian, eta handik aurrera izango da festarako tartea.

### Festa goizetik

Ofizialki Santioak arratsaldean hasiko badira ere, festa bihar goizetik izango da Astigarragan: Toka eta potolehiaketa, buruhandiak, bazkariak, animazioa eta txokolata jatea izango dira, besteak beste. Txupinazoa eta gero, Akelarreak girotuko du herria, bigarren urtez. Eguna bukatzeko musika izango da nagusi: *Gazte Jai* diskoteka eta *Lirica de Ceros* eta *Los Bonitos del norte*.

### Santio Eguna, ostegunean

Santio eguna izaten da festetako egun nagusietako bat: haurrentzako jokoak izango dira goizean nagusi; eta arratsaldetik aurrera, musika eta dantza: Astigar dantza taldearen erakustaldia, *Trovahavana* talde kubatarra, Larrain dantza, *Mandoilek* taldea...

### Santa Ana, ostiralean

Ostirala baserritarrentzako antolatutako ekintzek markatuko dute. Idi probak, herri kirolak eta bertsolariak izango dira eguerdira bitartean, Plazan. Sagardo dastaketa ere izango da, Euskal Herrian egiten den zaharrena. Arratsaldean, herri kirol desafioa dute Astigarragako koadrilek. Eta eguna bukatzeko, hegaluze pintxoak eta Gernikako piperak izango dira dastatzeko, eta *Laiotz*, trikitilari eta txosnetako kontzertuak, dantza-tzeko. Tartean, herriko presoak ere izango dituzte gogoan.



Astigarragan Santio festetan egiten den Sagardo Dastaketa Euskal Herriko zaharrena da.

### Asteburuan ere, festa

Asteburuan inguratuko da ziurrenik, inguruko herrietako gazte gehien. Larunbat goizean umeentzako joko eta ikuskizunak izango dira

nagusi; eta gauean, musika. Igandean, betizu jateak markatuko du eguerdi partea; eta iluntzea bi ikuskizunek: ile apainketa artistikoak eta su kalejirak. ||

### UZTAILAK 24- Osteguna

10:30 Toka eta Poto lehiaketa.  
12:00 Feriak irekiko dira  
12:00 Txupinazo txikia  
13:30 Erretiratuen bazkaria  
14:00 Haurrentzako bazkaria  
14:00 Gaztelekuko bazkaria  
16:00 Haurrentzako animazioa  
17:00 ZooZoom Foru Plazan  
18:00 Txokolata jatea  
19:00 Pregoia eta txupinazoa  
19:30 Akelarrea  
20:30 Txosna irekiera  
21:00 Akelarrearen antzerkia  
23:00 Gazte Jai diskoteka  
23:30 Lirica de Ceros eta Los Bonitos del norte, Txosnan.

### UZTAILAK 25- SANTIO

07:00 Aulki jokoa eta txokolata jatea Foru plazan  
09:30 Txistularien diana  
10:30 Haurrentzako VI Txirridularitza proba  
11:00 Meza Nagusia Santio Mendiko ermitan  
11:30 Haurrentzako jokoak  
12:30 Udaltzaren soka dantza Foru Plazan

### 13:00 Elegancia Mexicana

mariatxiak Foru Plazan  
17:00 Sokamuturra txikia Foru Plazan  
17:00 Pasai txaranga  
18:00 Astigar taldearen Dantza Erakustaldia, pelotalekuan  
19:30 Umerezko bakarriketa Barry Manleyekin, txosnan.  
19:30 Trovahavana talde kubatarra, Barandiaran Plazan.  
23:45 Larrain Dantza, Foru Plazatik.  
00:15 Mandoilek taldea Barandiaran Plazan  
00:15 Gau kubatarra txosnan  
**UZTAILAK 26 - SANTA ANA**  
09:30 Zubietako joaldunak  
09:30 Estanga trikitilariak  
**Foru plazan:**  
09:30 Idiak pisatzea  
11:30 Gozogintzako azoka  
11:30 Sagardo dastaketa  
11:30 Idi dema: Aiako Izeta, Errenteriako Iñarreta eta Igeldoko Olasagasti, 1.700kg-ko harriarekin  
12:00 Bertsolariak: Aitor Mendiluze eta Xabier Zeberio  
14:30 Bazkaria sagardotegian.

### Txartelak, Zipotza tabernan.

18:00 Herri Kirol jaialdia Foru Plazan  
18:30 On egin Mon Amour ikuskizuna Apeztegi Plazan.  
19:30 Trikitilariak.  
20:00 Laiotz Barandiaran Plazan.  
20:00 Hegaluze pintxoak eta Gernikako piperrak parrillan.  
20:00 Hileko azken ostiraleko kartel agerraldia.  
23:30 Laiotz Barandiaran plazan  
00:00 Aborto Fallido, Anboters eta txema taldeak txosnan  
**UZTAILAK 27 - Larunbata**  
10:00 Iker Ruizen oroimenezko XIII 3x3 Saskibaloitxo txapelketa.  
12:00 Paintball gunea eta Kinekt pantailak Erribera plazan  
12:00 Haurrentzako puzgarri eta tailerrak, Foru Plazan  
14:30 Gazte Bazkaria  
16:00 Paintball eta Kinekt pantailak Erribera plazan  
16:00 HPuzgarriak eta tailerrak  
17:00 Bingoa Galtzaur elkartean  
18:00 Apar festa Foru Plazan  
18:30 Sugarri Show fanfarrea

### 19:00 Eriz Mangoa Norberto

Almandoz Plazan  
23:00 Errimak oinetan Haatik dantza ikuskizuna pelotalekuan.  
23:30 Testing, drogei buruzko informazioa eta analisi gunea.  
00:00 Txarantukada  
00:00 Sorpresa, Eutsi eta Joxe Replay taldeak, txosnan  
**UZTAILAK 28 - Igandea**  
12:00 Erraldoiak eta buruhandiak Hernaniko dultzaineroek lagunduta, Foru Plazatik.  
13:00 Betizu pintxoak Foru Plazan.  
14:30 Betizu jatea Foru Plazan. Txartelak, Ikatzan.  
17:00 Pala erakustaldia urritasun fisikoaren kirolarien eskutik. Ondoren, J.L. Berakoetxearen oroimenezko IX Pelota jaialdia  
18:00 Sienta la cabeza ile apainketa artistikoa. Barandiaran plazan.  
23:00 Piratas de Malpika su kalejira Kale Nagusia-Galtzaur elkargunetik abiatuta.  
00:00 Astigarragako II. Film laburren lehiaketa.



Endika erremontista.

## Endika faborito gaur, Matxin VIaren kontra

Irabazleak Juaristiren  
kontra jokatuko du  
Kutxa Sarirako pasea.

Gaurko bi erremontistek geroz eta gertuago dute Kutxa Saria jokatzeko pasea. Endika eta Matxin VI izango dira aurrez aurre; zaleentzat, luxuzko partidua izango dena. Banaka ikaragarriko maila ematen ari dira biak, eta bai batak eta bai besteak, aukera haundia du Kutxa Saria jokatzeko.

### Bikain orain arte

Aurrelariak dira biak, banaka, artistak; faboritoa ordea, azpeitiarra izango da gaurkoan. Partidu bikainak jokatuko dituzte orain arte biek; Matxin VIak hiru erremontista kanporatu ditu, momentuz. Gaur ordea, duen guztia eman beharko du, Azpeitiko aurrelaria txapelketatik kanpo utzi nahi badu.

### Irabazleak, Juaristi zain

Gaurko partidua irabazten duen erremontistak partidua batera izango du Kutxa Sarirako pasea. Aurrera egiten duenak Juaristiren kontra izango du duela, Banakako Txapelketa Nagusia jokatzeko.

### Barrentxeak, partidua

Partidua 16:00etan hasiko den jaialdiko azkena izango da. Aurretik bigarren partiduan, Barrentxeak hernaniarrak jokatuko du. Bikote Urriza izango du eta aurrean, Juaristi eta San Miguel. ||

IPINTZA SAGARDOTEGIKO  
UDAKO MENUA

ETXKO FRUITUAK EDO TOMATE ENTSALADA  
(ENDI ETA EROI IAN DAUTZI)  
TXERRI SAHESKOA  
(BIZIATIK FRISTU ETA LITURAGABE)  
SAGARDO KARTA / URA / URTEKO ARDOA

12€

f jarri gaituzi

ASTIGARRAGA ordian

Santio Zeharra, 12 ASTIGARRAGA TEL 688 81 17 24 www.ipintza.com

ITXASPE

Arrandegia  
Antziola 5  
Tel: 943 330 365  
Mobila: 653 74 10 97  
20120 Hernani

CATALANA OCCIDENTE

Aseguruak

Atzeta 30 -  
20120 Hernani  
Telf - 943-332440  
Fax - 943-556602

-Bautista-Biurarena-Etxegolea

gse  
Asesoreak

Aholkularitza eta  
tramitazio  
zerbitzua

Kardaberaz 40 behea  
Telfnoa: 943 55 02 54  
Faxa: 943 33 58 01  
www@gseasesores.net

☎ TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 092 ● DYA: 943 464622  
 ● Autobusak: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037  
 ● Anbulatorioa: 943 006666 - 943 203020 ● Jokalari anonimoak: 943 331103 ● Alkoholiko anonimoak: 943 331103  
 ☒ FARMAZIAK ● Egunez: Chucua Kardaberaz 48 - 943 551793 ● Gauez: Aldabe Perkaiztegi 8 (Antziola) - 943 336022

**EGURALDIA**  
**GAUR** Lainoak izango dira hizpide eta euria egin dezake, batez ere, goiz partean. Temperaturak beheara egingo du, pixka bat: Min.19° / Max.25°  
**BIHAR** Goizean laino batzuk izango badira ere, arratsaldean onera egingo du eguraldiak. Temperatura, gora: Min.19° / Max.26° (euskalmet)

## KIROLDEGIA - IKASTAROAK ABUZTUAN

# Igeriketan hasi nahi dutenek aukera dute, abuztuan

Hastapeneko ikastaroak emango dituzte, heldu zein umeentzat. Izen-ematea zabalik dago ostiralera arte.

KIROLDEGIAN urte osoan izaten da ikastaroren batean parte hartzeko aukera. Udan ere, eskaintza zabala izaten dute. Aurten, igeriketa ikastaroak antolatu dituzte, abuzturako.

**Ikasi edo konfiantza hartu nahi dutenentzat**  
 Hastapeneko ikastaroak dira, ikasi nahi dutenentzat

edo nahi bezain ondo moldatu ez, eta praktikatu nahi dutenentzat.

Helduen kasuan, abuztu osoan izango da ikastaroa, egunero, astez, 08:00etan hasita.

Txikiaren kasuan, adinaren arabera antolatu dituzte. 3-4 urtekoek, dakitenek, astelehen, asteazken eta ostiralean dute, 09:15etan; adin

berekoek, baina ez dakitenek, astearte eta ostegunetan. 5 urtetik gorakoek aldiz, egunero izango dute ikastaroa. Igerian ez dakitenek 10:10etan; eta dakitenek 11:10etan edo 12:10etan.

**Izen-ematea, zabalik**  
 Ikastaroetan izena eman nahi dutenek ostiralera arte dute aukera, Kiroldegian bertan. ||

## TRIATLOIA - ZUMITZA TALDEA



### Zumitzako Lander Muñoak eta Xabat Aizpioleak bukatu zuten Iron Mana.

Rotheko Iron Mana jokatu zen asteburuan. Milaka triatletek hartu zuten parte, tartean, Zumitzako Lander Muñoak eta Xabat Aizpioleak. 1.900 metro egin behar izan zituzten igeri, 80 km bizikletan eta 42,2 km korrika. 3.407 triatletek bukatu zuten Iron Mana; Lander Muñoak 916 postuan bukatu zuen eta Xabat Aizpioleak 1.750 postuan. Bestalde, Tuterako proban ere hartu zuten parte Zumitzako bi triatletek. Emakumeetan, Ines Arraitunandiak 10garren bukatu zuen; eta gizonetan, Asier Oconek 67garren. ||

## Jasota Bezala

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

### San Juanetan hondakinak hobeto bildu ditugu: Zorionak denoi!

Pasa berriak diren San Juan festen balantzea egiten ari dira Hernaniko Udala, enpresak, tabernak, elkarteak, taldeak... Hernanin Zero Zaborreko kideok gurea egin dugu eta zorionak eman nahi dizkizuegu hernaniar guztioi, hondakinen gaian aldaketa handiak egiteko gai izan garelako.

Guk hobetzea zertan nabaritu dugun esango dugu laburki. Hasteko, kaleetan lurrean botatuko plastikozko basoak asko gutxitu dira, denok ikusi dugu eta kaleko garbitzaileek ere esan digute. Krisi ekonomikoak izango

zuen zerikusirik, baina nabarmena da nola gaur normaltasunez usatzen ditugun edalontzi berrerabilgarriak, eta horietako gehienak hartutako lekuan bueltatzen ditugula, garbitu eta hurrengo baterako.

Afari, merendola eta horrelako otorduen ondoren hondakinak bereizita biltzen ere ohitura hartu dugu. Zoriontzeko kasu bat nabarmentzeko, gazteek Ezkiaga plazan egin zuten herri bazkarian aurreko urteetatik asko hobetu ziren gauzak. Kanpotik etorritako gazteei entzun diegu beren harridura aipatzen Hernaniko gazteen jokabideagatik. Zorionak! Gainera, aluminio-pape-

rearen ordeztu tupper-ware tipoko ontziak erabiltzeko ohitura ere zabaldu da. Herritar askok komentatu dugu txalotzekoa izan dela presoen aldeko txosnan oilaskoa -Hernaniko jaietan klasiko bat dena- tuperrean ateratzea.

Badira hobetzeko gauzak ere. Guk ikusitakoak kontatu dizkiogu udalari. Baina San Juanetan egin ditugun aldaketa hauek balio behar dute urtean zehar egiten diren beste festa eta ospakizunetarako, Txotx denboraldirako eta abar. Zorionak hernaniar guztiok! "Ondo ari gara"!

**Kontxi Aldanondo Aranburu Hernanin Zero Zabor**

## AMHER

### Sukaldaritza ikastaroak, larunbatetan

Hernaniko bizilagun berrin herrietan hain ezagunak diren jakiak sukaldatzen ikasteko aukera jarri du AMHERek. Sukaldaritza ikastaroa antolatu du larunbatetan; aurrenekoa izan da dagoeneko, eta hilaren 27an eta abuztuaren 4an eta 10ean izango dira datozenak. Senegal, Peru, Maroko eta Kolonbiako sukaldaritza ikasteko aukera izango da. Parte hartzeko izena eman behar da aldezturik [amhersosracismo@mugak.org](mailto:amhersosracismo@mugak.org) helbidean, 667 71 09 28 telefonoan edo AMHEReko bulegoan, asteartetik ostiralera. 50 euro balio du. ||

## GOIZ EGUZKI

### Calpe-ra joateko plazak badaude oraindik

Alicanteko Calpe herrira bidaia antolatu du Goiz Eguzki irailaren 23tik 29ra. Jakinarazi dutenez, oraindik badaude plazak. Izena abuztua baino lehen eman behar da Goiz Eguzkin bertan edo 669 269 420 telefonoan. ||

## Egoitza itxita, abuztuan

Abuztuko opor garaia dela eta, Goiz Eguzkitik jakinarazi dute egoitza itxita egongo dela hilabete osoan. ||

## TURISMO BULEGOA

### Uztailean eta abuztuan bisita turistikoak egiteko aukera, Hernanin

Hernani ezagutu nahi dutenek udan ere informazioa eskatzeko aukera izango dute Turismo Bulegoan (Biteriko plazan). Egoitza irekita egongo da uztailean eta abuztuan, lanegunetan, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara; eta igande eta jaiegunetan, 10:00etatik 14:00etara. Aurten gainera, bi bisita gidatu egiteko aukera jarri dute. Hirigune historikoa bisitatu nahi dutenek aukera izango dute, debalde. Eta nobedadea da, mendi irteera gidatuak antolatu dituztela: Santa Barbara ezagutzeko bata; eta Larre Gain ingurua ezagutzeko bestea. Bisita gidatuak egin ahal izateko, gutxienez, sei pertsonako taldeak osatu behar dira. ||

## Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

**† FLORENCIO DEL RIO SANTAMARIA**  
 JAUNA  
 Herenegun hil zen, 69 urte zituela  
 - Goian Bego -  
*Maitasunak ez dauka heriotzarik.  
 Gauero, zeru gaineran irriparez  
 dagoen izar berria zara zu.*

**ANA MARI, AINHOA, KOLDO, JUANJO, UXUE,  
 MAIALEN ETA GAINONTZEKO SENDIAK**

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizue eta arren etor zaitzetea **GAUR, ASTEARTEA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN**, Floridako **SAN JOSE LANGILEA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2013ko uztailaren 23an

Helbidea: Etxeberri auzoa  
 OHARRAK: Gorputza ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIOAN egongo da eguerdiko

## IRAGARKI MERKEAK

**TXOLLOAI, 120.000€**, Victor Hugo kalean. 2 gelatako pisua, igogailua, orain dela 10 urte eraberritua. Deitu: 699 450 815

**Akordeioa salgai**, Zero Sette markakoa. Deitu: 686 679 075

**ETXEKO KONPONKETAK egiten dira**; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

**Itigo Royo Masajista**. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, aurikuloterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)